



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

IPES Fundazioaren proiektua

www.cineddhh.org



Unitate didaktikoa (euskaraz)

Zurrumurruen aurkako estrategia, gizartean elkarrekin bizitzeko tresna giltzarria



Zinema, Mundua eta Giza Eskubideak

Giza Eskubideen ikuspuntutik eta zinemaren bidez ulertzea mundua. 17. unitate didaktikoa.
Zurrunmurruek aurkako estrategia, gizartearen elkarrekin bizitzeko tresna garrantzirik

Egileak:

Rut Iturbide Rodrigo, IPES Fundazioa

Rubén Díez Díaz-Crespo, zurrunmurruek aurkako gazte-taldeko kidea

IPES FUNDATZIOA – 2019ko abuztua

Descalzos k., 72, behealdea - 31001, Iruñea (Nafarroa)

948 22 59 91 – fundacion@fundacionipes.org

www.fundacionesipes.org

www.cineddhh.org

"Antzitatespen - Ez komertzial - Obra eratorririk gabeko 3.0 Espainia (by-nc-nd)" lizentziarekin dago lan hau.

Lizentziaren kopia bat ikusteko, jo webgune honetara:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Testuak, argazkiak, grafikoak, irudiak eta izenak, logotipoak, merkataritzako markak eta zerbitzuko markak komunikabide eta webgune desberdinen jabetzakoak dira, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

Aurreko azalaren diseinua: Iratxe Esparza (PUNTO Y SEGUIDO)

Euskarazko unitate didaktikoa - © 2019 Fundación IPES

AURKIBIDEA

I. Unitate didaktikoaren aurkezpena	2
I.1. Zergatik egin ezaugarri hauek dituen unitate didaktiko bat?	2
I.2. Unitate didaktiko hau kokatzen den esparru normatiboa eta heziketa-mailak	3
I.3. Unitate didaktiko honen hartzaileak eta egitura	3
II. Helburuak	4
II.1. Helburu orokorra	4
II.2. Berariazko helburuak	4
III. Oinarrizko gaitasunak	4
IV. Eduki kontzeptualak	5
IV.1. Sozializazio-agenteen garrantzia (familia, eskola, hedabideak...), kultura-identitatea eraikitzeke	5
1.1. Kultura-identitatea eta hari atxikitako kultura-joerak	5
1.1.1. Kultura-identitatea eraikitzeke prozesua	6
1.1.2. Gure gizarteetan elkarrekin bizi diren kultura-joera desberdinen mapatzea	7
1.2. Hedabideak, aurreiritzien sortzaile moduan	9
1.2.1. Hedabideen estrategia duala bizikidetzaren dinamikan: zenbait talde ikusezin egitea eta beste batzuk negatiboki egitea ikusgai	9
IV.2. Unitate didaktiko honetako kontzeptu giltzarriak ikasleekin lantzeko: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria	10
1.1. Zurrumurruak	10
1.2. Estereotipoak	10
1.3. Aurreiritziak	11
1.4. Diskriminazioa	11
IV.3. Gizarte askotarikoa eta elkarrekin bizi dena: zurrumurruren aurkako estrategia	12
1.1. Zurrumurruren aurkako estrategia	12
1.2. Zurrumurruak ekiditen saiatzeko oinarrizko hiru teknikak	12
V. Jarduerak	13
V.1. Kultura-identitatea. Nola eraikitzen dira kulturak?	13
V.2. Unitate didaktikoko kontzeptu gakoetan sakontzea: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria	15
V.3. Elkarrekin bizi gara ala elkarrekin existitzen gara?	16
V.4. Hedabideek erraztu egiten dute gizarteko bizikidetzaren edo are zailagoa egiten dute?	17
V.5. Zurrumurruren aurkako estrategia	18
V.6. Denok pertsonak gara	21
VI. Ebaluazioa	22
VII. Bibliografia	23
VIII. Eranskinak	25

I. UNITATE

DIDAKTIKOAREN

AURKEZPENA

I.1 ZERGATIK EGIN EZAUGARRI HAUEK DITUEN UNITATE DIDAKTIKO BAT?

Zurumurrak, estereotipoak eta aurreiritziak bezala, gizateriaren historia osoan existitu izan dira, eta emaitzak beti berak izan dira: gizartearen *statu quo*-ari eustea eta gizarte-talde desberdinetakoak diren pertsonen arteko harremanak zailtzea. Izan ere, egun oraindik oztopo nagusietako bat dira pertsona guztien artean eragin-truke edo interakzio positiboa errazteko, kultura-aniztasuneko testuinguru batean, eta bai gizartean erabateko integrazioa lortzeko ere.

Alde horretatik jotzen du Bartzelonako Udalak 2010. urtean egin zuen ikerketa batek. Helburua zen kulturartekotasuneko plan bat egitea hirirako, eta bertan bizi ziren hiritarrei galdetu zieten zein ziren kultura-jatorri desberdinetako hiritarren artean bizikidetza zailtzen zuten faktoreak. Eta ondorioztatu zuten %48,1ek aipamena egiten zietela elementu subjektibo-erlazionalei, nagusiki biri: elkarren gaineko ezjakintasuna, eta zurumurrak, estereotipoak eta aurreiritziak; horiek jota bizikidetza horretarako oztopo nagusizat. Horrek agerian uzten du garrantzitsua dela ahalik eta azkarrena lantzen hastea, batetik, kulturartekotasunaren eta hura benetan lortzearen garrantzia, gure gizarteko kultura desberdinen arteko bizikidetza hobetzeko, eta bestetik, giltzarriak diren estrategien gaineko prestakuntza, besteak beste, zurumurruen kontrakoarena (gakoak diren kontzeptuei heltzea, hala nola zurumurruari, aurreiritziari eta estereotipoari, haiek saihesteko, murriztu eta/edo errotik kentzeko tresnei, eta abarri).

Aniztasuna gizarte modernoan elementu ezaugarrietako bat da. Hasiera batean ikasteko eta pertsonen arteko bizikidetza hobetzeko aukera gisa ikusi eta ulertu beharko litzatekeen dibertsitate hori, zenbaitetan, arazo gisa ikusten dute pertsona horietako askok. Aniztasuna ezaugarri negatibotzat jotzetik hainbat aurreiritzi eta estereotipo sortzen da, jeneralean, kuantitatiboki minoritarioa den kulturaren aurka, eta horrek are gehiago zailtzen du kultura desberdinen arteko interrelazioa toki berean. Desberdintasun-sentimen hori eta aniztasuna ez onartze hori zenbait kultura-korrante eskusogenotatik erator daiteke, unitate didaktiko honen bidez landu nahi direnak. Era berean, gure gizarte osoaren gainean zein ondorio negatibo duten azaldu nahi da.

Horri guztiari gehitu behar zaio garrantzitsua dela gizarte osoa jakitun izatea gure herrien, hirien eta estatuen etorkizuna kulturartekotasunean dagoela. Hau da, lehentasunezko eran gazteen artean, herritarren kultura-aberastasuna emango duen gizarte-hezkuntzazko eredu bat sustatzean; aniztasuna aitortu eta errespetatzetik abiatuta, trukearen eta elkarriketaren bidez, berdintasunean, tolerantzian eta elkartasunean oinarritutako gizarte bat garatzeko. Eta hor sortzen da alde horretatik lan egiteko beharra unitate didaktiko honen bidez.

Gainera, unitate didaktiko honek hainbat eduki jasotzen du, direla gizarte-bizikidetza aberatsa, askotarikoa eta plurala eragozten duten kontzeptu teoriko giltzarriak (zurumurrak, estereotipoak...) eta/edo kultura-identitateari dagozkion korronteak (etnozentrismoa, kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna...), direla “zurumurruen aurkako” komunikazio-tresnak eta trebetasunak, bizikidetzako estrategia eta dinamika sozial eskusogenoak errotik ateratzeko. Hori guztia gizarte- eta genero-berdintasuneko ikuspegi batetik landuta.

I.2 UNITATE DIDAKTIKO HAU KOKATZEN DEN ESPARRU NORMATIBOA ETA HEZIKETA-MAILAK

Unitate didaktiko hau DBHko bigarren zikloko (4. maila), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako graduatuko ikasleekin erabiltzeko diseinatu da.

Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretuan, 7. artikuluan, zeharkako elementuak aipatzen dira, eta hitzez hitz laugarren puntuan hau ageri da:

“Ikastetxeek, irakaskuntzako programazioen bitartez eta Hezkuntza Departamentuak xedatzen duenaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra eta genero indarkeriaren edota desgaitasuna duten pertsonen aurkako indarkeriaren, indarkeria terroristaren, eta indarkeria, arrazismo eta xenofobia forma ororen prebentzioa sustatzen duten balioen garapena bultzatu beharko dute”.

Era berean, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculuma ezartzen duen apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuan, 3. artikuluan, etaparen helburuak biltzen dira, eta, zehazki, c) atalean, aipatzen da Batxilergoak ikasleengan gaitasunak garatzen lagunduko duela, ondokoak egin ahal ditzaten:

“Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzea, gaur egun dauden berdintasun-eza eta diskriminazioak kritikoki aztertzea eta balioestea eta, bereziki, emakumearen kontrako indarkeria, eta pertsonen benetako berdintasuna eta edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatiko bazterkeriarik eza bultzatzea, desgaitasuna dutenei arreta berezia eginez”.

Eta berriro 7. artikuluan, zeharkako elementuak aipatzen direnean, bosgarren puntuan, hitzez hitz hau biltzen da:

“Era berean, ikastetxeek ekintzak burutuko dituzte ezein izaera edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminazio-ezak eta tratu berdintasunak berezko dituzten balioak sustatzeko helburuarekin eta horretarako, beste neurri batzuen artean, edozein diskriminazio mota suposatzen duten portaera eta eduki sexistak eta estereotipoak ekidinen dituzte”.

Azkenik, eta nahiz eta Lanbide Heziketako zikloetako irakaskuntzetan ez dagoen berariaz jasota, unitate didaktiko honetan lantzen diren helburu orokorretan, edukietan eta prozeduretan gaitasun hauek garatzea bultzatu nahi da: gaitasun soziala eta zibikoa, hizkuntza-gaitasuna eta ikasten ikastea. Eta, hortaz, irakaskuntzaren maila horretan ezin hobeto sartu eta egokitzen dela baloratzen dugu.

I.3. UNITATE DIDAKTIKO HONEN HARTZAILEAK ETA EGITURA

Unitate didaktiko honen hartzaileak irakasleak dira. Helburua da irakasle horiek jarduerak egin ahal izatea zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria prebenitzeko, ikasleak egun gizarte eta testuinguru multikulturetan bizi direla ulertuta; eta ontzat jotzen da eta helburutzat kulturartekotasunera hurbiltzea, eta areago hura lortzea. Horretarako, eduki teorikoak eta ikasleekin erabil daitezkeen material eta jarduera zehatzak ematen zaizkie. Material eta dinamika horiek egokitu egin daitezke, bai hartzaile zehatzak aintzat hartuta, bai eta haien kopurua eta, jakina, beharrak ere kontuan hartuta.

Unitate didaktikoa zortzi ataletan egituratzen da: lehenbizikoan, unitatearen premia justifikatzen da; gero, helburuak eta oinarritzko gaitasunak biltzen dira, baita eduki kontzeptualak eta garatzekoak diren jarduerak ere. Geroago ebaluazio-mekanismoak ezartzen dira, erabilitako eta gomendatutako bibliografia ere ageri da, eta, azkenik, zenbait eranskin daude, proposatutako jarduerak egiteko moduko material espezifikoak biltzen dituztenak.

II. HELBURUAK

II.1. HELBURU OROKORRA

Zurumurruek, estereotipoek eta aurreiritziek egungo gizartean duten inpaktua eta dinamikak ikusgai egitea eta haien gaineko kontzientzia harraraztea, hartara, kulturartekotasuna sustatzeko eta pertsona *desberdinak* (nagusiki, kulturari eta jatorriari dagokionez desberdinak) diskriminatzea eta baztertzea saihesteko.

II.2. BERARIAZKO HELBURUAK

- Pertsona baten kultura-identitatea nola eraikitzen den eta hura garatzean zein faktorek eragiten duten ezagutzea.
- Zurumurruren, estereotipoaren eta aurreiritziaren kontzeptuak bereizten jakitea; eta bereizkeria-dinamikak eta haiek sortzen dituzten ondorioak ezagutzea, haien irakurketa kritikoa egin ahal izateko.
- *Zurumurruen aurkako estrategia* ikusgai egitea eta haren gaineko kontzientzia harraraztea, begirada kulturartekotasunera bideratzeko, eta bizikidetza eta interrelazio kulturala errealitatea duten gizarteak eraikitzeko.

III. OINARRIZKO GAITASUNAK

- a) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- b) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- c) Ikasten ikasteko gaitasuna.
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- e) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

IV. EDUKI

KONTZEPTUALAK

Jarraian aurkezten den unitate didaktikoa gauzatu ahal izateko behar diren kontzeptu guztiak garatuko dira atal honetan, eta bai haietakoren baten azalpena argitzen duten adibideak eta irudiak ere.

“Aurreiritzi”, “estereotipo”, “zurrumurru” eta “bereizkeria” hitzei dagokienez (kontzeptu gakoak unitate didaktiko honetan), zenbait zalantza teoriko dago eta bai ezjakintasuna ere sortzen, hedatzen eta borrokatzen diren moduaren gainean; eta, horrenbestez, tresna honen bidez, ikasleekin alderdi horiek jorratzeko funtsezkoak diren zenbait alderditan sakonduko da. Horretarako, egitura honi jarraituko zaio:

1. *Sozializazio-agenteen garrantzia (familia, eskola, lagunak, hedabideak...), kultura-identitatea eraikitze.*
2. *Ikasleekin landu beharreko kontzeptu giltzarriak (zurrumurrua, estereotipoa, aurreiritzia, bereizkeria), bizikidetza hobetzeko gizarteetan.*
3. *Gizarte askotarikoa eta elkarrekin bizi dena: zurrumurruen aurkako estrategia.*

IV.1. SOZIALIZAZIO-AGENTEEN GARRANTZIA (FAMILIA, ESKOLA, HEDABIDEAK...), KULTURA-IDENTITATEA ERAIKITZEKO

Sozializazio-agenteei (familia, eskola, lan-merkatua...) inportantzia handia dute pertsonen identitatea eratzean. Kultura-identitateari dagokionez (unitate didaktiko honetan aztertze esparru gako), hiru nabarmendu behar dira nagusiki: familia, eskola eta hedabideak. Hori hala izanik ere, material honetan familia eta hedabideak baino ez dira landuko, ulertzen baita eskolak gai honi heltzen diola unitate didaktiko hau inplementatzearen bidez. Familiarekin lotuta, esan behar da sozializazio-agente nagusia dela, jaiotzatik bertatik pertsonen bizitza eraikitzen laguntzen baitute, eta familia jakin batek praktikatzeko duen kulturarekin lotutako balio eta sinesmen batzuei lotzen zaizkie. Hedabideak direla-eta, esan behar da oso eginkizun garrantzitsua dutela kultura-identitatea eraikitzearen barnean; izan ere, kasu askotan, eta ikerketa ugari berresten duten moduan, informazioak negatiboki moldatzen ditu pertsonak zenbait talderen aurrean.


Kulturak ahalbidetzen dio pertsonari mundua modu jakin batean hautematea eta ulertzea, sozializazio-prozesu konplexu baten bidez ikasten diren sinesmenen, jardunbideen, ohituren eta usadioen arabera. Sozializazio-prozesu horretan lehenago aipatu diren agente desberdinek parte hartze dute, familiak, eskolak eta hedabideak. Kultura-identitatea eskuratzeko prozesu hau hobeki ulertzeko, prozesu hori nola gertatzen den eta beraren barnean aintzat hartu behar diren elementu desberdinak ezaugaritu behar dira.

1.1. KULTURA-IDENTITATEA ETA HARI ATXIKITAKO KULTURA-JOERAK

Atal honetan, funtsean, bi gauza lantzen dira: alde batetik, kultura-identitatea eraikitze prozesua, bere maila desberdinekin eta elementu giltzarriekin; eta bestetik, egungo gizarte-interakzioan dauden lau joera kultural funtsezkoen existentzia eta ezaugarriak.

1.1.1. Kultura-identitatea eraikitze prozesua

Kultura kontzeptu konplexua da, mugatzen zaila dena. Hori dela-eta, Edgar Schein (1988) psikologoaren definizioak kontzeptua zehazten lagundu diezaguke. Egile horren arabera, kultura da talde batek ikasi dituen erantzunak, bizirik irauteko arazoen aurrean bere kanpoko ingurunean eta barne-integratzioko arazoen aurrean. Bestela esanda, pertsonak beren bizitzan zehar dituzten esperientzien multzoa da kultura, bai bakarka eta bai taldeka ere. Esperientzia pertsonal horiek hiru mailatan banatu daitezke, ulerterrazagoa izate aldera, zuhaitz batekin paralelismoa eginez, hauek izango liratekeenak: a) *sustraiak*, b) *enborra* eta c) *adarrak*.



- Aurreneko mailak** gure kulturen errotuen dauden eta *sinesmenei eta balioei* egiten die aipamena. Zuhaitzaren sustraiak lirateke. Esate baterako, munduaren ikuskera eta *ohiturak* lehen maila honetan eskuratzen den zerbait da.
- Bigarren maila instituzioei** dagokie, non lehen mailatik eratortzen diren sinesmenak eta balioak gauzatu edo sustatzen diren. Hartara, estadio bat taxutzen da, eta hartan errazagoa da desberdintasunak ikustea kultura batetik bestera. Zuhaitzaren enborra erakusten dute. Instituzio horien adibideak legeak dira, erlijiozko jardunbideak edo familiek komunitate batean duten pisua edo garrantzia.
- Hirugarren mailak** kultura baten *jardunbide zehatzak* erakusten ditu, ikusten errazena diren ezaugarriak hartzen dituen barne. Zuhaitz batean, ikusten errazena sinbolizatuko luke, adarrak. Hirugarren maila hau gehiago dago aurreiritzi edo estereotipoen mende baino. Jantziak, jaiak, janaria edo hizkuntza izango lirateke adibideak.

Analogia horren bidez, lantzen ari garen unitate didaktiko honetan kontuan hartu beharreko bi alderdi ikus daitezke: batetik, kultura baten ezaugarri guztiak ez daudela maila berean; eta bestetik, maila batzuk besteak baino gehiago daudela aurreiritziak eta estereotipoak sortzearen mende.

1.1.2. Gure gizarteetan elkarrekin bizi diren kultura-joera desberdinen mapatzea

Esan daiteke gure gizarte modernoetan *lau joera* nabarmen hauek daudela kultura-interakzioarekin lotuta:

a) *Etnozentrismoa eta unibertsalismoa*

b) *Multikulturalismoa eta interkulturalismoa*

Alde batetik, lehen biek (etnozentrismoa eta unibertsalismoa) gehiago edo gutxiago konfrontaziozkoa den arbuioa erakusten dute “desberdina” denarekiko, eta estereotipoak eta aurreiritziak eragiten dituzte. Eta beste alde batetik, kultura-dibertsitatea sustatzen duten kultura-korronteak ditugu, nahiz eta era desberdinean ulertzen duten; eta halakoak dira multikulturalismoa eta interkulturalismoa. Dituzten antzekotasunak eta interrelazioa aintzat hartuta, kultura-joeren biko bakoitza atal berean azalduko da.

a) Etnozentrismoa eta unibertsalismoa

Etnozentrismoaren kultura-korrontean, norberak eskuratutako balioak aplikatzeko joera dago, egokienak, onenak eta zuzenenak direla uste delako. Munduko kultura gehien-gehienetan presente dagoen ezaugarria dira dinamika etnozentristak, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta, gainera, zalantzan jartzen dituzte beste kultura batzuk.

Unibertsalismoa, izenak berak adierazten duen moduan, muturrera eramandako etnozentrismoa da; izan ere, kultura bat “onena” delakoan baitago, bai beretzat eta bai “gainerako” kulturetzat ere. Begirada unibertsalista hori, adibidez, mendebaldeko kulturen gertatzen eta adierazten da, askotan, kultura hori goragoko eta garatuagotzat jotzen baita, eta, hortaz, egokientzat gainerako kulturetarako. Hau da, kultura-dibertsitatea hierarkizazio erlazio baten ikuspuntuaren pean ulertzen da, eta hierarkizazio horretan nagusitze-menderatzeko dibertsitate binomikoa da nagusitzen dena.

Jarrera-hartze edo posizionamendu unibertsalista eta etnozentrista horiek *arbuioa eta aurreiritzi negatiboak* sortzen dituzte gainerako kulturen aurrean, eta hori larria da gurea bezalako gizarte batean, kultura-dibertsitatea egitatea baita. Kultura bera eta haren hegemonia hartzen ez duten pertsonak kontuan hartzeko jarrera gutxiestekoa da, arbuizatzea edo beldurra sentitzekoa, eta horrek aurreiritziak sortzen ditu, kulturarteko-interakzioei eragiten dietenak, eta bizikidetzaz zailtzen du. Latinoamerikako herrialdeetakoren bateko eta Afrikako herrialdeetakoren bateko kultura mendebaldar bihurtzea horren adibidea da; izan ere, hainbatetan ez da errespetatu haietako jatorrizko kultura eta uste izan da mendebaldeko kultura egokiena zela, batez ere azken horrek bere gizarteari aurrerabidea ekarriko ziola adierazten zuen ideia estereotipatuaren pean, jatorrizkoa “azpigaratu” edo “atzeratutzat” jotzen baitzen.

Biak ala biak, joera etnozentrista eta unibertsalista, **monokulturalismo** esaten zaionarekin lotuta daude. Izenak berak adierazten duen moduan, horren azpian dagoen ideien arabera, onena da kultura bakarra egotea gizarte guztietarako. Nahiz eta ez den eragin handiena duen korrontea, kultura desberdinetako pertsonen arteko bizikidetzari kalte larria egiten dioten taldeak mugiarazten ditu, kultura-aniztasuna mehatxua balitz bezala hautematen. Horrek *arrazakeria*¹ eta/edo *xenofobia*² ekartzen ditu, eta haien ondorioa *gizarte-zatiketa*³ da, non harmonia amaitu eta gizarteko hainbat talde baztertzen diren.

1 Arrazakeria bereizkeria-modu bat da, oinarrian ideia hau duena: arraza bat nagusia da gainerakoen aurrean, eta komunitate edo herrialde baten barnean baztertuta, bakartuta edo bereiz eduki behar da. Jazarpenaren edo bereizkeriaren arrazoa etnia da, eta era berean lotzen da “intolerantzia kulturalaren” kontzeptuarekin, aurreko mendeetan arrazen arteko desberdintasunak ezabatzeko baliatzen zenarekin.

2 Xenofobia atzerriko pertsonetikiko arbuioa da, hau da, diskriminazioaren arrazoa jatorria da, jatorrizko lekua.

3 Gizarte-zatiketa kontzeptua bereizkeriaren kontzeptuari lotuta dago. Prozesu honetan, gizarteko gainerako kideek baztertuta egiten dute pertsona-talde bat. Hori hainbat faktorengatik gerta daiteke, hala nola hezkuntza, kultura, diru-sarreraren ekonomiko eta abarengatik. Baina diskriminazioak beti oso eginkizun garrantzitsua du egoera horretara iristeko.

b) Multikulturalismoa eta interkulturalismoa

Kultura-aniztasunak kultura desberdinen arteko bizikidetza eta eragin-trukea dakar pertsona-talde edo gizarte batek partekatutako eremu geografiko beraren barnean. Nolanahi ere, ikusi den moduan, bizikidetza eta kultura-interakzio hori ez dira beti gertatzen eta ez daude beti hartan parte hartzen duten pertsonak. Alde horretatik, kulturen arteko benetako bizikidetza eta interakzioranzko bidean bigarren maila batez hitz egin ahal izango litzateke: **multikulturalismoa**. Beste kultura batzuen presentzia onartzean datza, baina betiere nagusitasun-posizio batetik eta haien artean mugak eta desberdintasunak ezarrita (kultura hegemonikoa eta gehienena vs “gainerako kulturak”). Zehazki, Espainian, adibide gisa erabiltzearen, duela urte batzuetatik hona heziketa-eredu multikulturala ari da sustatzen; izan ere, nahiz eta etorkinen kopurua handitu egin den azken hamarkadan, horrek ez baitu ekarri gutxiengo kultural hori ikasgelen barnean islatzea, identitate aldetik arintzea, eta, ondorioz, jeneralean partekatzen ez dituen balioei eta sinesmenei egin behar die aurre.

Multikulturalitatean *baterako existentzia kulturala*, *koexistentzia kuluturala*, gertatzen da. Horrek dakar “desberdinarekin” batera bizitzea errespetatzen dela, baina jarrera pasibo batetik eta nagusitasun-ikuspegi batetik, ikuspegi asimilazionista batetik beste kulturarekiko. Kultura-dibertsitatea bizitzeko modu honek zaildu egiten du beste kultura batzuk ezagutzea eta, aldi berean, haien gaineko aurreiritziak sortzea eragiten du.

Hori gorabehera, bada beste kultura-korrante bat, dibertsitatea era positiboan ulertzen duena. **Interkulturalismoa** da, eta egun irekitasunaren aldeko jarrera handiena ekarriko luke bizikidetzan eta kultura-interakzioan. Kulturen arteko horizontaltasuna sustatzen du, haien arteko bizikidetzan eta desberdinak diren sinesmenak balioetsi eta onartzean jartzen du arreta. Gizarteak kulturarteko ikuspegia izatera igarotzeko helburua lortzeko –nahiz eta ez den beti erraza– García Castaño egileak (2000) hainbat printzipio ezartzen ditu. Hartara, interkulturalitatea gauzatzeak printzipio horietan oinarritu beharko luke. Hauek dira, zehazki:

- i. *Esku-hartze kulturala ez da egin behar soil-soilik espazio formaletan*, besteak beste, ikastetxeetan, baizik eta beste espazio batzuetan ere landu behar da, adibidez, lan-arloan eta eguneroko bizikidetzan, kulturarteko jardunak zeharkakoa izan behar baitu gizarteko esparru guztietan.
- ii. Herritartasunaren, etniaren, hizkuntzaren, sexuaren edo generoaren arabera *pertsonak estereotipatzeak* interkulturalitatea zailtzen du. Kulturen arteko erabateko bizikidetza hasten da alde batera uzten denean pentsamolde estereotipatua eta besterik gabe desberdinak izateagatik kultura desberdinen arteko pertsonen artean auresuposatzen diren oztopoak kentzen direnean.
- iii. *Elkar ulertzea* eta *enpatia* bi tresna giltzarri dira, kultura-talde desberdinen arteko gatazketan edo, areago, talde beraren barnekoetan “desberdinak” diren pertsonenganako sortzen den arbuioari heltzeko.
- iv. *Gogoeta egitea* honen gainean: kultura desberdinetako bi pertsonaren artean diferentzia gutxi dagoen arren, kultura horiek ezagutu edo haietatik ikastera hurbiltzea eragozten diguten hormak eraikitzen ditugu. Alde horretatik, ona da ulertzea kultura bakar bat ere ez dela “bakarra” eta, horrenbestez, pertsonak zenbait kulturaren sintesi batekoak garela. Horren adibidea izango litzateke Espainiar Estatuaren kultura-eraikuntza edo prozesu berriagoak, besteak beste, denbora-epe luze batean migratzen duten pertsonenak eta jatorriko lekuko kultura eta migratu duten tokikoa sentitzen dutenenak.

Alde horretatik, multikulturalismoko baterako existentzia edo koexistentzia kulturalaren aurrean, **ikuspegi interkulturalistak bizikidetza kulturala bultzatzen du**, dibertsitatea aberastasun-iturritzat jotzen duena, pertsona guztientzat den gizarte baten eta *bizikidetza-ingurune* hobe baten baterako eraikuntza nabarmenduta, besteak beste, *errespetuari* eta *enpatiari* esker. Jarrera horiek giza interakzioko testuinguru bat sortzen dute, eta testuinguru horretan gizarteak zalantzan jartzen ditu eta eskas dira aurreiritziak eta estereotipoak.

1.2. HEDABIDEAK, AURREIRITZIEN SORTZAILE MODUAN

Hedabideak iraultza soziala izan dira, bere garaian nekazaritza-iraultza eta industria-iraultza izan ziren moduan. Informazioa sortu, hedatu eta jasotzeko era izugarri aldatu da azken garaietan. Pertsonak eguneko 24 orduetan egoten gara konektatuta sarera, gure gustuen eta Googleko bilaketen arabera informazioa jasotzen dugu sakelakoan, gure eguneroko bizimodua munduari erakusteko sare sozialak erabiltzen ditugu eta hainbat plataforma eratu da, hala nola Facebook, Twitter, Instagram eta abar, gure jarraitzaile-talde txikian hitza eduki ahal izateko. Dena den, hedabide berriek ekartzen dituzten onurak ezin konta ahala izan arren, ezin dugu alde batera utzi XXI. mendeko gizarteetan dagoen aniztasunaren aurkako aurreiritzietako askoren sortzaileak ere badirela hedabideak. Izan ere, arrazoi horregatik dute berariazko atal bat unitate didaktiko honetan. Nagusiki, aurreiritziak-sortze hori bi tresna gakoren bidez gauzatzen dute: alde batetik, kolektiboak ikusezin egitearen bidez; eta bestetik, zenbait kolektibo negatiboki ikusgai egitearen bidez.

1.2.1. Hedabideen estrategia duala bizikidetzaren dinamikan: zenbait talde ikusezin egitea eta beste batzuk negatiboki egitea ikusgai

a) Zenbait talde ikusezin egitea

George Steinerrek esaten duen moduan, *“aipatzen ez dena ez da existitzen”*. Oro har, askotan, hedabideek esaten digute zertaz hitz egin behar dugun, zer jakin behar dugun eta zer egin behar dugun. Alde horretatik, horren adibide argiak daude, besteak beste, hedabide horien aldetiko nolabaiteko erosotasuna, gutxitan kontsultatzen baitiete informazioa gertakarien protagonistei. Horrenbestez, nabarmentzekoa da pluraltasun-eta aniztasun-eza egunkarien erredakzioetan, telebista-kateetan, webguneetan eta abarretan, ikerketa ugaritan alde horretatik jasotzen den moduan.

Informazioaren kalitaterako eta errealitatearen gaineko begirada berriak emateko, kazetaritzari dagokionez, hedabideetan jatorri desberdinetako profesionalak egotea eta haietan emakumeek neurri handiagoan parte hartzea beharrezkoa da. Gainera, aipatzen ez diren edo gutxi ordezkatzaren diren errealitate sozialak. Egoera horretan, garrantzitsua da informazioa hartu eta irakurriko duen pertsonaren kontzientzia kritikoa piztea, lau jardunbide kritikoren bidez, *Guía práctica para agentes antirumores* (2016) lanaren arabera:

1. *Zalantzan jartzea* justifikatuta dagoen edo ez albisteen protagonisten herritartasuna, etnia edo erlijioa aipatzea.
2. Ez fidatzea errealitatearen sinplifikazioez eta distortsio edo itxuraldatzeaz, zenbait talderen “on vs txar” irudia ematen den testuinguruetan, informazioa ematen ari den gertaeren konplexutasuna azaldu gabe.
3. *Ez uztea eramaten albiste txarrenengatik eta sentsazionalistenengatik.*
4. *Aniztasuna faktore positibo moduan agerrarazten duten informazioak bilatzea* edo, besterik gabe, aniztasun hori ezohiko moduan agertzen ez den, baizik eta gure gizartearen beste ezaugarri bat den, eguneroko ikuspegi eta ikuspegi normalizatua eskaintzen dutenak bilatzea.

b) *Beste talde batzuk negatiboki egitea ikusgai*

Hedabideek nolabaiteko joera dago zaurgarriak edo ahulak diren taldeak eta gizartetik baztertuta daudenak negatiboki adjektibatzeke, eta lotura arriskutsuak egin ohi dira zenbait talderen eta *delituzko gertaeren* artean, esate baterako, ijitoen edo etorkinen eta lapurreten edo tratu txarren artean.

Immigrazionalismoa kontzeptu berria da, hedabideek migrazioaren fenomenoari ematen dioten trataera aztertzearen bidez sortu dena. Kasu askotan, tratu sentsazionalista ematen da, albisteek izaera humanoa, zintzoa eta errespetuzkoa izateari uzten diote, helburu komertzialagoa izateko, eta horrek ekartzen du hesi bat eraikitzea hartzaileen artean. Immigrazioaren gaineko *manipulazio informatiboak* beldurra, gorrotoa eta nahasmena sortzeko joera du, eta, areago, indarkeria eragiten amaitzen du.

IV.2. UNITATE DIDAKTIKO HONETAKO KONTZEPTU GILTZARRIAK IKASLEEKIN LANTZEKO: ZURRUMURRUAK, ESTEREOTIPOAK, AURREIRITZIAK ETA BEREIZKERIA

“Zurrumurru”, “estereotipo”, “aurreiritzi” eta “bereizkeria” kontzeptuak oso lotuta daude beren artean, eta ez dira beti ulertzen errazak, ez badira teorikoki lantzen, ez badira batera erlazionatzen eta ez bada sakon hausnartzen haien gainean. Era konplexuagoan garatzen kontzeptu horiek, hau esan dezakegu:

1.1. ZURRUMURRUAK

Sunsteinen arabera (2010), *zurrumurruak* pertsonei, taldeei edo gertaerei buruzko adierazpenak dira, hedatu eta pertsona batengandik beste batengana zabaltzen direnak, egiazkotasuna frogatu gabe, eta sinesgarritasuna dutenak, ez frogatzen dituztelako frogak daudelako, baizik eta pertsona askok sinesten dutelako haietan. Ziur asko denok entzungo genuen noizbait nondik datorren ez dakigun informazioa, ez eta nork esan duen ere; eta horrek agerian uzten du zurrumurruak gure eguneroko bizimoduan daudela eta arlo guztietan zabaltzen direla, hala nola eskolan, familian, lanean eta abarretan.

Zurrumurruak sortu eta hedatzean eragiten duten bi faktore nagusi daude: *garrantzia* eta *anbiguotasuna*. Bi faktore horiek azaltzen dute zergatik hedatzen diren baita zentzugabeenak, sinestezinenak edo suntsitzaileenak diruditen zurrumurruak ere:

1. Zurrumurruaren edukiak entzuten duen pertsonarentzat garrantzitsua den edo zuzenean eragiten dion alderdiren, gertaeraren edo ekintzaren bati erreferentzia egitearekin zerikusia du *garrantziak*. Hau da, zurrumurrua zenbat eta garrantzitsuagoa izan pertsonarentzat, orduan eta errazagoa izango da barneratzea eta zabalkundea ematea.
2. *Anbiguotasuna* honi dagokio: zenbat eta zehatzagoa izan zurrumurru bat –pertsona jakinei eragiten die, datak edo tokiak adierazten dira– orduan eta aukera handiagoa dago entzuten duenak zalantzan jartzeko; informazioa zalantzazkoagoa bada, ordea, neurri txikiagoan jarriko da dudan eta, beraz, zailagoa izango da “desmuntatzen”.

1.2. ESTEREOTIPOAK

Estereotipoak beti kontzienteak ez diren sinesmen batzuetan oinarritzen dira, izan ere, jeneralean, automatikoki barneratuta ditugun asoziazioak dira. Estereotipoak askotan saihestezinak dira, eta zerbaiti edo norbaiti buruz aurretik dugun ideia bat dakarte. Aurreiritzien eta estereotipoen artean dagoen erlazioa ongi ikusteko, ulertu behar da azken horiek talde baten kontra sortzen direla, eta esajerazioan eta orokortzean oinarritzen direla, eta horrek aurreiritziak sortzen ditu talde horren aurka.


1.3. AURREIRITZIAK

Allport psikologoaren (1947) definizioan oinarrituta, **aurreiritzizat** jotzen da talde batekoa den pertsona batenganako etsaitasunezko jarrera eta jarrera mesfidatia, besterik gabe, talde horretakoa delako. Egile horrek esaten duen moduan, kontzeptu horrek aipamena egiten dio pertsona batek duen jarrerari, *sentimenen* eta *emozioen* konbinaziotik sortua, azkenean *jarrera* bihurtzen dena. Aurreiritzietan ematen den informazioa ikaragarri sinplifikatua da, ez du funtsatzeko oinarririk, eta horregatik da erraza transmititzen eta zailagoa da zalantzan jartzea, murriztea edo errotik kentzea. Izan ere, aurreiritzi askotan ziurtasunak edo egia absolutuak ikusten ditugu, eta horrek gezurtatzeko ahalegin handia eskatzen du.

1.4. DISKRIMINAZIOA

Bereizkeriak edo *diskriminazioak* arbuio- eta intolerantzia-jarrerak transmititzen ditu jakina den norbaitenganantz edo zerbaiten kontra, eta horrek, zenbaitetan, kasu larrienen, migrazio-prozesuak ekar ditzake, nahitaezko erbesteratzeak eta gizarte baten barnean talde edo pertsona batzuk kanpo uztea. Bereizkeria-modu desberdinak daude, baztertzen ari den taldearen arabera. Arruntena kultura-bereizkeria da, eta horretan agertzen dira hainbat kontzeptu, besteak beste, lehenago aipatu diren xenofobia eta arrazakeria. Gainera, badira beste diskriminazio batzuk, adibidez, dibertsitate sexualarengatik eta funtzionalarengatik gertatzen direnak.

Lau kontzeptu horiek labur, erraz eta modu praktikoan ulertzeko, egoera hipotetiko bat proposatzen dugu: autobusean pertsona bat eseri da gure ondoan eta ez digu konfiantzarik ematen. Une horretan egituratze automatizatu bat gertatzen da, irakurketa kultural eta sozialeko dinamikak jartzen dituen martxan, besteak beste:



ZURRUMURRUA Entzuten dudana	ESTEREOTIPOA Pentsatzen dudana	AURREIRITZIA Sentitzen dudana	BEREIZKERIA Egiten dudana
“Musulmanak terroristak dira”	“Zerbait egingo dit” “Zerbait leherraraziko du”	Izua	“Ez natzaio hurbilduko” “Ez dut berarekin hitz egingo”
“Immigranteek Lana kentzen digute”	“Lanik gabe geldituko naiz bere erruarengatik”	Arbuioa Gaitzespena	“Ez diot lagunduko” “Ez diot erakutsiko”
“Gurpildun aulkian dabiltzan pertsonak ez dira gai”	“Laguntza behar dute, bakarrik eta beren kasa ezin baitute ezer egin”	Pena Arbuioa	“Ez diot begiratu” “Lagundu behar izatea saihestuko dut, deseroso bainago”
“Lesbianak biziotsuak dira”	“Musuak pribatuan eman ditzatela”	Nazka Gaitzespena	“Gaizki begiratzen diet ikusten ditudanean” “Iraindu egiten ditut”

IV.3. GIZARTE ASKOTARIKOA ETA ELKARREKIN BIZI DENA: ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA

Funtsean joera etnozentrismoa, unibertsalismoa edo, kasu gehienetan, multikulturalitatea duten gizarteen aurrean, bizikidetzat hobe lortzeko estrategiak gauzatu behar dira, besteak beste, *zurrumurruen aurkako estrategian* proposatzen direnak.

1.1. ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA

Zurrumurruen aurkako estrategia zurrumurruen aurre egiten saiatzen da, konbentzitzean eta sentsibilizatzeko oinarritzen diren tresna eta teknika batzuen bidez. Teknika horiek, aurretik interakzio-esparru bat sortzearen bidez osatu behar dira. Interakzio-esparru horretan, *horizontaltasun-jarrera* bat dago hitz egingo den pertsonaren aurrean, *jarrera aktiboa*, *errespetuzko jarrera* eta bizitzen ari den *egoerarekin bat datorren jokaera* hartzea. Bestela esanda, teknika hauek aplikatu ahal izateko eta ahalik eta eraginkorrenak izateko, garrantzitsua da beldurrik ez izatea *argi eta garbi aitortzeari pertsona guztien eskubideak* eta haiek erabiltzera ausartzea. Edonola ere, aintzat hartu behar da jendeak, sozialki zalantzan jartzeko beldurrez, ez aplikatzea eta ez inplikatzeko aukera.

1.2. ZURRUMURRUAK EKIDITEN SAIAITZEKO OINARRIZKO HIRU TEKNIKAK

Zurrumurruak ekiditen saiatzeko oinarritzeko hiru teknikak hauek dira:

a) **Zalantza sortzea**

Dudan jarri behar da entzun dena egiazkoa den edo ez. Horretarako, garrantzitsua da pertsona bultzatzea errealitatea lehen eskutik ezagutzera, egon litezkeen bi bide hauetatik. Alde batetik, iturri ofizialen bidez informazioa zuzenean jasotzeko aukera eskaini behar zaio, inguruan entzun dezakeenak eragiten ez uzteko, hau da, jakin-mina izatera bultzatu behar da. Eta bestetik, zalantza galdera zuzenen bidez sortzen da. Galdera horietan dudak jartzen da bai entzun den zurrumurruaren jatorria bai eta zurrumurrua hedatu den modua ere.

b) **Informazioa izatea**

Informazioa izatea funtsezkoa da ikuspuntu desberdinak eta zurrumurru baten iturri desberdinak ezagutu ahal izateko. Horrek ahalbidetzen du informazio gehiago izatea, eta, hortaz, zailagoa izatea iturri bakar baten edukiak eragina izatea guregan. Informazioaren bidez lortzen da baztertutako pertsonen errealitatera heltzea eta, gainera, beste pertsonaren tokian jartzeko gai izatea, enpatiazko jarrera eta jarrera horizontal baten bidez. Eta hori teknika honekin lortu behar denaren zati ere bada.

c) **Orokortzeak zalantzan jartzea**

Orokortzen eta esajeratzen, talde berekoak diren pertsona desberdinei jokaerak edo jarrerak egotzen zaizkie. Hartara, orokortzeak zalantzan jartzen ohartzen gara zenbat esajerazio zabaltzen den zurrumurru edo aurreiritzi moduan eta azkenean kolektibo jakin baten gaineko estereotipo bihurtzen den. Alde horretatik, garrantzitsua da helaraztea eta, beraz, ez ahaztea pertsona bakoitzak inguruabar edo ezaugarri pertsonal batzuk dituela, bakan egiten dutenak, eta, horrenbestez, ezin dela auresuposatu pertsona batek modu batera jokatu duela talde edo kolektibo batekoa delako, besterik gabe.

Azken batean, hemen biltzen dira, pertsonen kultura-identitatearen garapenari eta unitate didaktiko honetako jardueren garapenerako (jarraian aurkezten dira) beharrezkoak diren lau kontzeptuei dagokienez –zurrumurrak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria–, beharrezkoak diren kontzeptu teorikoak.

V. JARDUERAK

V.1. KULTURA-IDENTITATEA. NOLA ERAIKITZEN DIRA KULTURAK?

a) **Helburua:**

Kulturak eta beren maila desberdinak –sinesmenak eta balioak, erakundeak eta jardun-bide zehatzak– nola eraikitzen diren jakitea, eta unitate didaktiko honetako oinarritzko kontzeptuen hastapenak lantzea: zurrumurrak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria.

b) **Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.**

Saio honek bi zati izango ditu, eta bakoitzak bere dinamikak.

1. Zehazki, lehen zatian, irakasleek **kulturaren kontzeptua azalduko dute eta bai nola eratzen den kultura bere maila desberdinetan**. Horretarako, irakasleak 1. eranskineko irudian oinarrituko dira: ikasleei banatuko diete eta, hartara, ikustean, azalpena errazago ulertuko dute. Behin irakasleek azaldu dituztenean zuhaitzaren irudian ageri diren maila desberdinak, taldeak egingo dituzte ikasleen artean, bi ezaugarri hauek aintzat hartuta: lehenbizi, kontuan hartuko da taldekideak gehienez ere 5 izatea (edonola ere, ikasgelan dagoen ikasle-kopuruaren arabera egin beharko dira taldeak); bigarrenik, talde horiek sexuaren arabera ere egitea. Hartara, hauek egongo dira: neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituzten taldeak eta talde mistoak. Sexuan oinarritutako banaketa triangeluar hau proposatzen da, Mercedes Bengoechea (2005) esaten duen moduan, neskek eta mutilek komunikazio-eredu desberdinak dituztelako, eta, eskuarki, mutilena nagusitzen delako. Arrazoi horrengatik garrantzitsua da espazio txikiak eta erosoak sortzea neskentzat, gainerakoan, gizartean naturalizatutako joera baita mutilen diskurtso hegemonikoaren erreproduktzio

hori berriro gailentzea talde mistoetan, nesken iritziak isilarazita. Horrenbestez, helburua da neskei eta mutilei entzutea, eta bai talde mistoetan esaten dena, eta egiaztatzea ea azkenean diskurtsoren bat era orokortuan hartzen den edo ez. Behaketa hori, bere horretan, emaitza bat da.

Ikasleei 2. *eranskineko* galderen gidoia emango zaie, eta, hartara, jada eginda dauden talde txikietan, kulturen eraketaren gainean egingo dute gogoeta, argudiatu behar dituzten galderen bidez, eta adibide batzuk bilduko dituzte (adibide horietan iruditeria edo imaginario ohikoenak ikusiko dira, estereotipoak...). Jarraian, komunean edo batera jarriko dute ikasgela osorako (hemendik aurrera, osokoa). Talde desberdinen artean eztabaidak sortzea bultzatuko da, batik bat, kultura desberdinetako kideak badaude haietan. Eta, era berean, “beste kultura batzuei” buruz ditugun ideien eta estereotipoen gainean ere egingo da gogoeta (eskuarki antzekoak diren ideiak eta estereotipoak), hau da, aldezturik pentsatzen ditugun ideietan nolako antza dugun ikusiko dugu.

2. Behin lehen zati hau amaitu denean, taldeak desegingo dira eta saioaren bigarren zatiri helduko zaio. Hain zuzen, ikasleek ideia-jasa egin beharko dute: **“zurrumurru”, “estereotipo”, “aurreiritzi” eta “bereizkeria” hitzak** kontuan hartuta burura datorkiena adierazi beharko dute. Arbela lau zatitan banatuko da, eta ikasleak esaten doazen hitzak idatziko dira bertan. Neskek eta mutilek parte hartzea bultzatuko da, eta lehentasunezko eran neskei hitza ematen saiatu beharko da, neskek gutxiago parte hartzen dutela ikusten bada, frogatuta baitago adin hauetan hala gertatzen dela. Ideia-jasa egin eta gero, irakasleek 3. *eranskinean* ageri den irudia banatuko diete eta hartan oinarrituko dira kontzeptuen arteko desberdintasunak azaltzeko (zurrumurrua, estereotipoa, aurreiritzia, bereizkeria). Behin kontzeptuak azalduta daudenean, irakasleei 4. *eranskineko* taula banatuko dute eta ikasleek bakarka beteko dute, kontzeptu horiek nola barneratu dituzten ikusteko. Amaitzeko, osoko saioa egingo dute, 4. *eranskineko* taula betetzeko baliatu duten informazioaren gainean.

c) Materialak.

- Arbela, ideia-jasako informazioa biltzeko
- Proiektorea edo pantaila, 1. eta 3. *eranskinetako* irudiak erakutsi ahal izateko.
- 1., 2., 3. eta 4. *eranskinetako* irudien eta galderen kopiak.

d) Denbora. Saio bat.

- Kultura-identitatearen eraikuntzaren eta bere mailen gaineko azalpena.
- Sexuaren arabera bereizitako taldeak eta mistoak antolatzea, eta kultura-identitatea eraikitzeke prozesuaren mailekin lotutako galderak egitea.
- “Zurrumurru”, “estereotipo”, “aurreiritzi” eta “bereizkeria” kontzeptuen gainean dakitenari buruzko ideia-jasa, eta haien gaineko azalpena ematea ondoren irakasleek.
- 4. *eranskineko* taula bakarka egitea, eta batera jartzea osoko saioan, irakasleek dinamizatuta.

V.2. UNITATE DIDAKTIKOKO KONTZEPTU GAKOETAN SAKONTZEA: ZURRUMURRUAK, ESTEREOTIPOAK, AURREIRITZIAK ETA BEREIZKERIA

a) Helburua:

Unitate didaktiko honetako oinarritzko lau kontzeptuetan sakondu eta haiek barneratzea: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria.

b) Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.

Saio honek ere bi zati izango ditu.

1. Aurrenekoan, errepaso labur eta azkar bat egingo da aurreko saioan jorratutako **lau kontzeptuen gainean**, beharrezkoa izanez gero 3. eranskinen irudian oinarrituta. Jarraian, irakasleek ikasleak taldetan banatuko dituzte, aurreko saioan egin den eran (gehienez ere 5 lagun taldeko eta neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituztenak eta mistoak), eta 5. *eranskinen* bideoa emango da. Behin bideoa ikusita, irakasleek haren gaineko galderak banatuko dizkiete ikasleei, erantzuteko (galdera horiek ere ageri dira 5. *eranskinen*). Galdera bakoitzeko 5 minutu utziko dira, taldeak gogoeta egin dezan galdera horien gainean, eta osoko saioan batera jarriko dira. Galdera bakoitza ikasle guztien artean batera jarri eta gero, erantzun desberdinak sortu badira, eztabaida txiki bat egin liteke.

Galderen erantzunetan, interesgarria da alderdi hauek agertzea:

- **Ikasleak gai izatea hauek identifikatzeko:**

- **zurrumurruak** (gazteek aurpegia dute, ez diete kasu egiten nagusiei, beren munduan bizi dira),
- **estereotipoak** (gailetak lapurtuko dizkit, eragotzi egingo dit),
- **aurreiritziak** (izua, itolarria, haserrea... sentitzen dut),
- **bereizkeria** (adineko pertsonak gailetak urrunduko ditu gaztearengandik).

Behin galdera guztiak amaitu direnean, irakasleek argitu behar dute zein faktorek duten eragina zurrumurruak sortu eta zabaltzean. Hauek dira: **garrantzia eta ambiguitasuna**. Ekarpen kontzeptualen 2. atalean jaso dira.

2. Saioaren bigarren zatian, irakasleek 6. *eranskinen* irudiak proiektatuko dituzte ikasgelako pantailan eta ikasleek dagozkien galderei erantzun beharko diete (galderak ere 6. *eranskinen* daude). Lehendik eratutako taldeetan, irudi bakoitzaren gainean ikasleek erantzun beharko dituzten galderak banatuko dira, irudi bakoitza talde desberdin bati baitagokio (emakume ijitoa, negozio-gizona, hijaba daraman emakume musulmana, gazte afrikarra, emakume gazte feministak, gizon euskalduna eta abar).

Jarduera honetan, irakasleen zeregina da talde desberdinei hitza ematea, bozeramaileak erantzuteko eta landutako kontzeptuak (zurrumurrua, estereotipoa, aurreiritzia eta bereizkeria) argi gelditu direla eta ulertzen direla ziurtatzeko ariketa praktikoaren bidez. Saioa amaitzeko, gogoeta txiki bat egingo da: ikasleek adierazi dituzten ideia nagusiak bilduko dituzte irakasleek eta ekarpen kontzeptualen 2. atal horretan azaldu den laugarren kontzeptura, *bereizkeriaren* kontzeptura, ez iristearen garrantziaz hitz egingo da.

c) Materialak.

- Bideoa.
- Jardueretako irudiak eman ahal izateko proiektorea.
- 5. eta 6. *eranskinen* galderen kopiak.

d) Denbora. Saio bat.

- “Zurumurrur”, “estereotipo”, “aurreiritzi” eta “bereizkeria” kontzeptuak errepasatzea.
- Aurreiritzien gaineko film laburra ikustea eta hari lotutako galderei erantzutea.
- 6. *eranskineko* irudiak ikustea, talde txikietan erantzutea eta gero osoko saioan haietaz hitz egitea.
- Landu denaren azken laburpena, edukiak finkatzeko.

V.3. ELKARREKIN BIZI GARA ALA ELKARREKIN EXISTITZEN GARA?

a) Helburua:

Kultura-artekotasunaren eta kultura-aniztasunaren kontzeptuak, etnozentrismoaren eta unibertsalismoaren kontzeptuak, eta haien guztien ondorioak jorratzea.

b) Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.

Aurreko biek bezala, saio honek bi zati izango ditu:

1. Aurreneko zatia teorikoa izango da, eta bertan **“interkulturalismo” eta “multikulturalismo” kontzeptuak** landuko dira. Irakasleak, horretarako, 7. *eranskineko* taulan oinarrituko dira. Irakasleek azalpen teoriko hori eman eta gero, 7. *eranskinean* ageri den bideoa emango dute, bi kontzeptu horien arteko aldeak azaltzen baitira.
2. Saioaren bigarren zatia dinamikoagoa izango da, eta ikasleek parte hartzea bilatuko da. Aurreko saioetako jarraibideei jarraituta banatuko dira ikasleak taldetan (gehienez ere 5 lagun taldeko eta neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituztenak eta mistoak), eta 8. *eranskineko* bideoak emango dira. Gainera, 8. *eranskin* horretan bertan dauden galderak banatuko dituzte irakasleek, taldeek erantzun eta hausnartzeko aukera izan dezaten, eta, ondoren, talde txiki guztien erantzunak batera jarriko dituzte osoko saioan.

Bideoak ikusi eta galderei erantzun bitartean, interesgarria da eduki hauek ateratzea:

- Kulturartekotasunaren garrantzia, bereizkeria murrizteko tresna gisa.
- Bereizkeria-egoera amaitzeko motor gisa heziketa beharrezkoa dela nabarmentzea.
- Arrazakeriaren eta xenofobiaren arteko aldeak. Dagokion bideoa ikusi eta gero, azaldu egin beharko dira, ez badira ateratzen edo ez bada argi gelditzen ikasleek egindako ekarpenetan. Erreferentzia-moduan har daiteke eduki kontzeptualen atala, han jasota baitago bereizketa hori.

Multikulturalismoaren gizarte-koexistentziaren eta interkulturalismoaren gizarte-bizikidetzaren arteko aldeak, horiek ere eduki kontzeptualen atal horretan jasoak.

Saioa amaitzeko kontzeptu garrantzitsuenak errepasatuko dira: ***interkulturalismoa, kultura-bizikidetzaren ideari lotuta, multikulturalismoa eta kultura-koexistentziaren dinamika; eta etnozentrismoa eta unibertsalismoa, xenofobiari eta arrazakeriari lotuak.***

c) Materialak.

- Beharrezkoa bada irakasleen azalpen teorikorako
- Proiektorea edo arbel digitala, 7. eta 8. *eranskinetako* edukia ikusteko
- 7. eta 8. *eranskin* horietako kopiak ikasleentzat.

d) Denbora. Saio bat.

- Kultura-koexistentziari lotutako *multikulturalismoaren* eta kultura-bizikidetzari lotutako *interkulturalismoaren* arteko diferentziei buruzko azalpen teorikoa, 7. *eranskineko* bideoan oinarrituta.
- Kultura-aniztasunari buruzko bideoak ikustea, eta taldeka 8. *eranskineko* galderei erantzutea.
- Saioko eduki garrantzitsuenak errepasatzea, *multikulturalismoa*, *interkulturalismoa*, eta *arrazakeriari* eta *xenofobiari* lotuta etnozentrismoa eta unibertsalismoa aipatzea.

V.4. HEDABIDEEK ERRAZTU EGITEN DUTE GIZARTEKO BIZIKIDETZA EDO ARE ZAILAGOA EGITEN DUTE?

a) Helburua:

Hedabideek ematen duten informazioaren eta zenbait talde (esate baterako, etorkinak, ijitoak...) aurkeztu eta irudikatzeko erabiltzen dituzten estrategien analisi kritikoa egitea.

b) Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.

Bloke honek bi saio izango ditu, eta ordenagailuak⁴ eta Internetarako sarbidea dituen ikasgela batean egingo dira:

1. saioa

1. Lehen saioan jarduera bakar bat egingo da. Zehazki, irakasleek taldeka banatuko dituzte ikasleak, aurreko saioetako irizpide berberei jarraituta (gehienez ere 5 lagun taldeko eta neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituztenak eta mistoak), eta talde bakoitzak ordenagailu bat izango du erabilgarri.
2. Behin taldeak eratuta daudenean eta beren ordenagailuekin, irakasleek 9. *eranskineko* orria banatuko dute. Talde bakoitzari orria eman eta gero, 9. *eranskineko* orrian agertzen diren *kolektiboak* (etorkinak, latinoamerikarrak, musulmanak, ijitoak, emakumeak, gizonak, eta abar) jarri edo idatzi beharko dituzte *Googletako bilatzailean*, jarraian “dira” edo “egiten dute” aditzak jarrita, ***gehien bilatzen diren esapideen jarraipenak*** zein diren ikusteko. Talde txiki bakoitzak kolektibo bakoitzaren gainean deigarrienak egin zaizkion hiru jarraipenak jaso beharko ditu orrian eta 9. *eranskinean* ageri diren galderei erantzun. Irakasleek 30 minutu emango dizkiete taldeei, bilaketak egiteko eta galderei erantzuteko. Behin denbora hori amaitu denean, ikasle guztien aurrean azalduko dute bilaketa horien gainean idatzi dutena eta bai galderen erantzunak ere, eta hori guztia irakasleek dinamizatuko dute.

2. saioa

Bigarren saioan, ***albisteak bilatu beharko dira Interneten. Albiste horietan immigrazionalismoa ikusiko da*** edo talderen baten kontrako gorrotoa eragiten duen testu sentsazionalistaren bat.

1. Aurreko saioan eratutako taldeei eutsiko zaie. Irakasleek 10. *eranskina* banatuko diete taldeei eta azalduko diete albisteen sei izenburu bilatu behar dituztela, kolektibo horiekin lotuta daudenak (etorkinak, musulmanak, ijitoak, eta bai emakumeekin eta gizonekin ere). Hartara, deigarrienak egin zaizkien sei izenburuak hautatu beharko dituzte, eta argudiatu egin beharko dute, idatziz, zergatik egin zaizkien deigarriak. Behin sei izenburu horiek aurkitu dituztenean, batera jarriko dituzte ikasle guztiekin eta, amaitzeko, irakasleek gogoeta egingo dute mota horretako albisteak aurkitzeko

⁴ Ez badago ordenagailuen ikasgelarik, nahikoa izango da smartphone bat edo Internetarako sarbidea duen tableta edukitzea, bigarren jarduera egiteko.

dagoen erraztasunaren gainean. Gainera, nabarmenduko dute ikuspuntu kritikoa izan behar dugula, zenbait hedabidetan ohikoak diren albiste-mota hauen aurrean.

2. Bigarren zatian, irakasleek hainbat kontzeptu azalduko dituzte, hala nola ***immigrazionalismoa, dibertsitate-eza iturrietan eta ikuspegi partziala, ez-oso edo okerra***, zenbait kolektibo negatiboki bakarrik aurkeztea eragiten duena (eduki kontzeptualen atalean ageri dira). Kontzeptu horiek erlazioan jarri eta lotu egingo dira ikasleek aurretik bildu dituzten albisteen izenburuekin.

c) Materialak.

- Arbela, irakasleek azalpen teorikoak emateko,
- Ordenagailuen gela, Internetekin lan egin ahal izateko
- Horrez gain, *9. eta 10. eranskinen* kopiak ikasleentzat.

d) Denbora. Bi saio.

Lehen saioa:

- Taldeak egitea eta *9. eranskinarekin* lotutako kopiak banatzea.
- *9. eranskinean* ageri diren kolektiboak Googlen bilatzea eta dagokien galderei erantzutea.
- Gogoeta egiteko batera jartzea ikasle guztien artean, irakasleek dinamizatuta, egindako bilaketen eta emandako erantzunen gainean.

Bigarren saioa:

- Lehenago aipatutako kolektiboari buruzko albisteen izenburuak bilatzea.
- Deigarrienak egin zaizkien sei titularrak hautatzea eta horretarako arrazoiak justifikatzea *10. eranskinean*.
- Hainbat kontzepturen azalpen teorikoa ematea, besteak beste, *negatiboki egitea ikusgai zenbait talde edo ikusezin egitea*. Eta kontzeptu horien lotura ikasleek bildutako albisteen izenburuekin.

V.5. ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA

a) Helburua:

Zurrumurruen aurkako estrategia ezagutu eta gauzatzea.

b) Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.

Bloke hau zabala da, eta lau zati izango ditu, hiru saiotan egingo direnak: 1. saioa, 2. saioa eta 3. saioa.

1. saioa

1. Aurreneko saioaren lehen zatian, irakasleek ***zurrumurruen aurkako estrategia*** azalduko dute bideoaren bidez (*nagusia* esaten zaio bideoari). *11. eranskinean* dago. Nagusi horrez gain, hiru bideo *osagarri* daude, *zurrumurruen aurkako estrategiari* buruzko informazio gehiago emateko balio dezaketenak, jarduera zabaldu nahi bada. Gero, irakasleek jarraituko dute azaltzen zein diren zurrumurru baten aurka egiteko edo jasotzen dugun informazioaren aurrean ikuspuntua aldatzeko hiru bideak edo tresnak (*zalantza sortzea, informazioa jasotzea eta ez orokortzea*). Beharrezkoa den informazio guztia eduki kontzeptualen IV. blokean dago jasota.
2. Lehen saioaren bigarren zatian, aurreko saioetan kontuan hartu diren irizpideen araberrako taldeak egingo dituzte irakasleek: gehienez ere 5 lagun taldeko eta neskak baino ez dituzten taldeak, mutilak baino ez dituztenak eta mistoak. Taldeak eginda daudenean, *12. eranskinean* dagoen ***bideoa jarriko die irakasleak. Bideoa ikusi***

bitartean, elkarrizketan entzuten diren estereotipo guztiak bildu behar dituzte ikasleek eta, horretarako, *12. eranskin* hori erabiliko dute (bideoa ikusten hasi baino lehen banatuko dute irakasleek). **Behin bideoa amaituta, batera jartzen ariko dira** talde txikietako bakoitzean, informazioa osatu ahal izateko. Hemen adierazten diren estereotipo guztiak aterako dira gutxienez, eta ez badira denak ateratzen, irakasleek aipatu egin ahal izango dituzte, ikasleek idazteko:

- Klima-aldaketa ez da existitzen.
- Txinatarrek kontrolatzen dute klima-aldaketa.
- Txinatarrek gu inbaditzen ari dira.
- Zerbitzari guztiak atzeritarrek dira.
- Immigranteak lanera etortzen dira.
- Etorrinen baldintzek ez dute axola, lo egiteko modua duten bitartean.
- Etorrinek bertako pertsona baten erdia kobra dezakete lan bera egin arren.
- Ijitoak alferrak dira.
- Musulmanek ez dakite gure hizkuntza eta harremanak beren artean baino ez dituzte izaten.
- Gazteak arazotsuak dira.

Behin informazioa osatuta dagoenean, irakasleek osoko saioa egingo dute, bildutako informazioaren gainean eztabaidatzeko. Garrantzitsua da *12. eranskineko* orria hurrengo saiorako gordetzea, berriro erabili beharko baitute eta, beraz, hori gogorarazi egin beharko zaie ikasleei.

2. saioa

Bigarren saioan, *zurrumurru bat desmuntatzeko tresnak* azalduko dira (*zalantza sortzea, informazioa jasotzea eta ez orokortzea*), gero praktikan jartzeko. Ekarpene kontzeptualetako 3. atalean adierazitako zurrumurruei aurkako estrategiaren laguntzarekin azalduko dira hiru tresna horiek. Horretarako, aurreko saioko taldeei eutsiko diete irakasleek eta *12. eranskineko* zerrendako hiru estereotipo aukeratu dira. Elkarrekin, talde txikietan banatuta, ikasleek estereotipo horiei aurka egiten saiatuko dira, ikasi dituzten tresnak baliatuta. Beharrezkoa bada, Interneten informazioa bilatzeko aukera emango da. Behin estereotipoak desmuntatu dituztenean, ikasleek denen aurrean azalduko dute nola egin duten. Jarduera honetan, ikasleengandik hau espero behar da:

- Estereotipoaren kontrakoak diren argudio baliodunak ematen dituen informazioa bilatzeko gai izatea.
- Adostutako estereotipoak gezurtatzeko hiru tresnak aplikatzea.

3. saioa

Hirugarren saioan, *role playing* baten bidez egingo da lana ***zurrumurruei aurkako estrategia praktikan jartzeko***. Hain zuzen, ikasle batzuek zurrumurruari eutsiko diote, beste batzuk aurka egiten edo desmuntatzen saiatuko dira, eta beste batzuk behatzen egongo dira eta jarduera hobetzeko proposamena egingo dute. Hartara, jarduera egiteko, aurreko saioan egindako bosnako taldeei eutsiko zaie. Talde txikietan, eginkizun edo rol hauek banatuko dira:

- *Zurrumurrua zabaltzen duten* pertsonak: 2 pertsona. Irmo eutsi beharko diote defendatu behar duten zurrumurruari, eta, beharrezkoa bada, zurrumurru gehiagorekin elikatuko dute.
- *Zurrumurruei aurkako agenteak*: 2 pertsona. Aurrez aurre duten zurrumurruari aurka egiten saiatzeko ikasgelan emandako tresnak erabili beharko dituzte. Oso garrantzitsua da enpatiazko jarrera eta positiboa izatea.

- *Behatzailea*: pertsona 1. Oharrak hartzen saiatuko da, esku-hartzea egokia izan den baloratzeko eta bai hobetu daitezkeen alderdien gainean ere. Geroago, *role playing*-a egin duen taldea era eraikitzailean ebaluatuko da.

Talde guztiek zurrumurru beraren alde egingo dute. Hortaz, komenigarria da, batetik, ikasleek hautatzea defendatu behar duten zurrumurrua, eta, bestetik, inplikatzeko ekarriko dien zurrumurrua izatea. Ez bada zurrumurrurik ateratzean, irakasleek hiru hauetako bat aukeratzeko esango dieten ikasleei:

- “Etorkinek kalifikazio txarragoak ateratzen dituzte eskolan”.
- “Ijitoak lapurrak dira”.
- “Gazteek egun osoa sakelako telefonoarekin ematen dute”.

Behin aukeratu denean jorratuko den zurrumurrua, *role playing* jarduera hasiko da, gidoi honen arabera:

- 8 minutu gutxi gorabehera, *role playing*-a egituratzeko eta probasaioa egiteko taldeetako bakoitzean.
- *Role playing*-ak antzeztea taldeetako bakoitzak, banan-banan. Gainerako ikasleak behatzen egongo dira.
- Behatzeko eginkizuna duenak bere taldekideei esango die, behin *role playing*-a eginda, nola ikusi dituen, zer egin duten ongi eta zer hobetu daitezkeen.

Jarduera egiten den bitartean, irakasleak laguntzen joan daitezke talde bakoitzean, beharrezkoa bada, edo jarraibideak ematen joan daitezke, jarduerari hobeki laguntzeko. Jarduera amaitzeko, irakasleek eztabaida bat hasiko dute: nola sentitu diren zurrumurrua hedatzen duten pertsonen rolean eta zein izan diren beren zailtasunak. Horretarako, oso garrantzitsua da behatzaileen iritzia, rol hori garatu dutenak baitira, eta objektibotasun eta distantzia handiagoarekin ikusteko modua izan baitute. Irakasleek ere zerbait esan dezakete, behatzailearen informazioa osatzeko.

c) Materialak.

- Proiektorea edo arbel digitala, bideoak emateko
- Interneterako sarbidea, beharrezkoa bada, edukitzeko
- Estereotipoei buruzko bideoari dagozkion 12. *eranskineko* galderen kopiak.

d) Denbora. Hiru saio.

Lehen saioa:

- *Zurrumurruen aurkako estrategiaren* azalpen teorikoa, bideoak ikustearen bidez.
- Estereotipoen bideoa ikustea, bertan agertzen diren estereotipoak aurkitzeko eta galderei erantzuteko talde txikietan.

Bigarren saioa:

- Zurrumurru bat desmuntatzeko edo hari aurka egiteko hiru bideak edo tresnak azaltzea: zalantza sortzea, informazioa izatea eta ez orokortzea.
- Aurreko saioko bideoa ikustearen bidez egindako zerrendatik hautatutako hiru estereotipoak desmuntatzeko taldeko lana.

Hirugarren saioa:

- *Role playing*-a zurrumurruen aurkako estrategia praktikan jartzeko.

V.6. DENOK PERTSONAK GARA

a) Helburua:

Pertsonon artean, batzen gaituzten gauzak bereizten gaituztenak baino gehiago direla gogoeta egitea.

b) Jardueraren deskribapena eta ikasleen antolaketa.

Azken saio honek bi zati izango ditu:

1. Saioaren lehen zatian dinamika bat egingo da. Dinamika hori egitea errazteko, irakasleek 13. eranskineko bideoa ikus dezakete. Hain zuzen, jarduera honen bidez egin nahi dena baino konplexuagoa den proposamen bat ikusten da bideo horretan. Horregatik, eta lana errazteko balio badezake, hemen haren sinplifikazio bat jasotzen da, ikasleekin gauzatu ahal izateko. Ikasleek zirkulu handi bat egingo dute, denak barnean egongo dira eta elkarri begiratu ahal izango diote aurpegira. Zirkulua eginda dagoenean, irakasleak esaldi batzuk esaten joango dira eta esaldian esaten dena egin duten ikasleek pauso bat eman beharko dute aurrera, hartara, segundo batzuetan, denak begiratu ahal izango denei aurpegira, denak ezagutuko dituzte, nolabaiteko izate-sena sortu edo baita norbaitek anekdotaren bat kontatu, bizi izandako adibideren bat kontatu edo irakasleek esandako esaldiari lotuta dagoen uneren baten berri eman. Irakasleek galdetu ahal izango dute ea inork bere istorioa kontatu nahi duen, eta, inork gehiagok ez duela ezer adierazi behar pentsatzen dutenean, hasierako zirkulua berriro eratzeko esango dute. Prozedura berari jarraituko zaio esaldi guztiak amaitu arte.

Irakasleek erabiltzen dituzten esaldien hasieran hitz hauek egongo dira: “Eman dezala pauso bat aurrera...”. Eta jarraitzeko hitz hauek esango dituzte, ordena honetan:

- Txokolatea gogoko duenak.
- Beste herrialde bateko lagun bat duenak.
- Anaia, arreba edo ahizpa duenak.
- Eskola gogoko duenak.
- Nagusitan zer izan nahi duen badakienak.
- Lagun bati dirua utzi dionak.
- Ijitoei buruz gaizki hitz egiten entzun duenak.
- Laguntza eskatu ez badiote ere, lagundu duenak.
- Norbaiten lepotik barre egin duenak.
- Gurasoekin eztabaidan aritu denak.
- Latinoak bortitzak direla pentsatzen duenak.
- Gurasoak okertu egiten direla pentsatzen duenak.
- Klean bakarrik joatean beldurra sentitu duenak.
- Talderen batean baztertu egin dutela sentitu duenak.
- Noizbait zerbait lapurtu duenak.
- Norbaiti buruz zurrumurruren bat zabaltu duenak.
- Berari buruz gaizki hitz egin dutela pentsatzen duenak.
- Musulmanak terroristak direla noizbait pentsatu duenak.
- Norbait baztertu duenak.

Interesekotzat jotzen dituzten beste esaldi batzuk edo talde jakin batekin edo ikastetxe jakin batean lantzea garrantzitsutzat jotzen dituzten batzuk gehitu ahal izango dituzte. Eta ikasleak ere gogotsu parte hartzen ari badira.

Behin dinamika hau amaitu denean, irakasleek, ikasleekin batera, dinamikako une aipagarrienak jasoko dituzte; adibidez, ikasle guztiek aurrera egitea ekarri duen esaldiren bat, edo estereotiporen bati aurka egitea ekarri duen esaldiren bat.

2. Saioaren bigarren zatia izango da *13. eranskin*eko bideoa ikustea. Gogoeta honen gaineko lana ikusten da bertan: ***pertsonok batera ditugun gauzak bereizten gaituztenak baino gehiago dira***. Digitaliki eta bisualki oso landuta dago, eta saioaren lehen zatian egin den dinamika zuen helburu bera du. Bigarren zati hau amaitzeko, bideoa ikusi eta dinamika egin eta gero, irakasleek hau galdetuko diete ikasleei:
- Zein ondorio atera duzue dinamika egin eta bideoa ikusi eta gero?

Galdera hori eginda, ikasleak ondorio honetara heltzea lortu nahi da: ***gizaki guztiok pertsonak gara***, kide garen kolektiboa gorabehera, gure zaletasunak gorabehera, gure kultura, gure sinesmenak edo itxura fisikoa. Ikasleek zailtasunak badituzte ondorio horretara heltzeko, irakasleek lagundu ahal izango diete iristen. Ondorio hori aterata, azken saio hau amaitutzat eman daiteke.

c) Materialak.

- Proiektorea edo arbel digitala, *13. eranskin*ari dagokion bideoa jartzeko.

d) Denbora. Saio bat.

- Irakasleak esandako esaldiarekin identifikatuta sentitzen direnean ikasleek pauso bat aurrera egiteko dinamika egitea.
- *13. eranskin*eko bideoa ikustea.
- Jarduerari eta bideoari buruzko ondorioa eta gogoeta.

VI. EBALUAZIOA

Ebaluazioa modu jarraituan egingo da, unitate didaktikoa landu ahala. Bloke bakoitza bukatuta, honako hauen gaineko ebaluazioa egingo da: ikasgelaren antolaera, taldeak, denbora, ikasleen interesa, sartutako kontzeptu berriak ulertu ote diren, eta abar; hartara, jarduerak berregokitu egin daitezke proposatutako helburua eta xedea lortze aldera. Irakasleek talde txikien funtzionamendua eta dinamika eta talde handiaren esku-hartzeak eta interakzioak erabiliko dituzte, prozesu honetan aintzat hartu beharreko adierazle moduan.

Ebaluazio-irizpideak:

- Kultura-joera desberdinen gaineko oinarritzko kontzeptuak ezagutzen ditu.
- Kontzeptu hauek bereizteko gai da: zurrumurruak, estereotipoak, aurreiritziak eta bereizkeria.
- Estereotipo bat identifikatzen du eta desmuntatzeko gai da.
- Bere sentimenak adierazten ditu bereizkeriaren aurrean.
- Parte-hartze aktiboa du, bai bakarka, bai lantaldeetan ere.
- Ideiak garbi adierazteko gaitasuna erakusten du.
- Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu eta modu aktiboan entzuten du.
- Eztabaidetan errespetuz esku hartzen du.
- Aldatu egin ditu aurretik zituen ideia batzuk.

Saioak amaitzean, ikasleekin egindako jardueren ebaluazio bat egin behar da, *14. eranskin*ean jasotakoa, proposatutako unitate didaktikoa inplementatzen amaitzeko. Zehazki, ikasleei ikasi dutenaren gainean galdetzen zaie, bereziki deigarria egin zaienaren gainean, gustatu zaienaren eta ez zaienaren gainean, zerbaitekin bereziki identifikatuta sentitu diren, beren ideietakoren bat aldatu den, eta, erantzuna baiezkota bada, zein...

VII. BIBLIOGRAFIA

Allport, G. eta Postman, L. (1947). The psychology of rumor. New York. Holt, Rinehart & Winston.

Arendt, Hannah, (1974). El pensamiento racial ante el racismo. Liburua: Los orígenes del totalitarismo. Madril, Taurus.

Bengoechea, M. (2005). Modelos comunicativos de género y su influencia presente y futura en la vida de niñas y mujeres. Liburua: Niñas son, mujeres serán. (Gasteiz 2006). Emakunde, Sare 2005.

Bericat, E. (2007). La valoración social del multiculturalismo y del monoculturalismo en Europa. [sarean]

https://idus.us.es/xmlui/bitstream/handle/11441/47602/00000599_090h0101.PDF?sequence=1&isAllowed=y

Brown, R. (1986). Social Psychology. 2. argitalpena, New York, Free Press.

Castaño, G. & Barragan, C. (2000). Sociedad multicultural e interculturalismo versus inmigración extranjera: aportaciones teóricas para el debate. Laboratorio de estudios interculturales, 211.-227. or.

D-CAS. (2016). Guía práctica para agentes antirumores. Bartzelona, Espainia.

<http://xn—logroointercultural-z3b.com/wp-content/uploads/2018/03/Gu%C3%ADa-pr%C3%A1ctica-para-Agentes-Antirumores-Barcelona-2016-CAST.pdf>.

Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duen apirilaren 22ko 24/2015 Foru Dekretua

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/

Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duen apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretua.

http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

Cruz, E. (2014). Multiculturalismo, interculturalismo y autonomía. Estudios sociales, 22, 247.-266. or.

Felgtb.org. (2019). ¿Quiénes somos? - FELGTB. [sarean]:

<http://www.felgtb.org/quienes-somos>

González Gabaldón, Blanca, (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. 79.-88. or.

Estatistikako Institutu Nazionala. (2018). Población residente en España. Madril, Estatistikako Institutu Nazionala.

Myers, D. (1995). Psicología Social. Mexiko, McGraw-Hill.

Pedraza, A. L., Obispo, S. K., Vásquez, G. L., Gómez, G. L. (2015). Cultura organizacional desde la teoría de Edgar Schein: estudio fenomenológico, Clío América, 9 (17), 17.-25. or.

Pettigrew, T.F. (1980). Prejudice. Thernstrom eta Cols. (arg.), Harvard encyclopedia of American ethnic groups. Cambrige, Mass. Harvard University Press.

Pettigrew, T.F. eta Meertens, R.W. (1991). Subtle racism: its components and measurement. Frantziako Paris hiriko Three days on Racism Conference konferentzian aurkeztutako txostena.


Rosnow, R.L. (1976). Rumor and Gossip: The Social Psychology of Hearsay. New York, Elsevier.

Sunstein, C.R. (2010). Rumorología. Bartzelona, Debate.

VIII. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

KULTURAREN ETA ZUHAITZAREN ARTEKO PARALELISMOA




2. ERANSKINA

AZALPENA EMAN ONDOREN EGIN BEHARREKO GALDERAK

1. Zuen ustez, zein sinesmen edo balio irakatsi dizkizuite jaio zaretenetik? Mesedez, jarri adibideak.
2. Lehen mailako balioak eta sinesmenak kultura batetik bestera asko aldatzen direla uste duzue? Argudiatu zuen erantzuna.
3. Bigarren mailari dagokionez (erlijiozko jardunbideak, hizkuntza, gizarte-antolaketa), zein desberdintasun daude kultura hauen artean: Afrikako kultura, Hego Amerikako kultura eta mendebaldeko kultura? Jarri adibideak, mesedez.
4. Zuen ustez, zergatik sortzen dira aurreiritzi edo estereotipo gehiago hirugarren mailan lehenbizikoan baino? Argudiatu erantzuna.
5. Zein dira zuetako bakoitzaren jardunbide edo ohitura ohikoenak? Jarri adibideak, mesedez.

3. ERANSKINA

“ZURRUMURRUA”, “ESTEREOTIPOA”, “AURREIRITZIA” ETA “BEREIZKERIA” AZALTZEKO LAGUNTZA.



4. ERANSKINA

BETE BEHARREKO TAULA

ZURRUMURUA Entzuten dudana	ESTEREOTIPOA Pentsatzen dudana	AURREIRITZIA Sentitzen dudana	BEREIZKERIA Egiten dudana
“Musulmanak terroristak dira”			
“Immigranteek ana kentzen digute”			
“Gurpildun aulkian dabiltzan pertsonak ez dira gai”			
“Lesbianak biziotsuak dira”			

5. ERANSKINA

AURREIRITZIEN BIDEOA

<https://www.youtube.com/watch?v=8MJQ6mHLfE>

1. Bideoko mutilari buruz adineko pertsonak entzungo zituen zurrumurruak identifikatzea, zein estereotipo izango zituen eta bai zein aurreiritzi ere.
2. Zuen ustez, adineko andreak bereizkeriazko jokaera izan du gaztearen aurka?
3. Gazteak zein zurrumurru, estereotipo edo aurreiritzi izango zituen adineko emakumearen gainean?
4. Bereizkeriazko zein jokabide izan zezakeen gazteak adineko emakumearen aurrean?
5. Zuen iritziz, zergatik jokatu du modu horretan gazteak? Nola sentitu zarete eta nola jokatuko zenuten zuek?

6. ERANSKINA

ZURRUMURRUEN, ESTEREOTIPOEN, AURREIRITZIEN ETA BEREIZKERIAREN DINAMIKARAKO IRUDIAK



Zuen ustez, nor da/dira?

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:

Zer dakizue kolektibo horri buruz?

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:

Dakizuen horretaz, bada zerbait zurrumurrua, estereotipoa edo aurreiritzia dena?

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:

Izan duzue harremanik edo kontakturik talde horretako pertsonaren batekin? Nola-koa izan da kontaktu hori?

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:

Kolektibo horietako pertsonaren bat baztertu duzuela esan dezakezue?

1. irudia:
2. irudia:
3. irudia:
4. irudia:
5. irudia:
6. irudia:

7. ERANSKINA

MULTIKULTURALISMOAREN ETA INTERKULTURALISMOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

1. taula. Multikulturalismoaren eta interkulturalismoaren arteko diferentziak

Interkulturalismoa	Multikulturalismoa
Bi kulturaren edo gehiagoren arteko trukea	Kultura desberdinen arteko koexistentzia baino ez du izendatzen, taldeen arteko interakzioa edo trukea kontuan hartu gabe
Talde eta kultura guztiak garrantzitsuak dira. Ez dago bat beste baten gainetik	Gutxiengoaren kontzeptua sortzen da. Kultura-talde nagusiaren azpitik dauden talde txikiagoak
Interakzio-mota bat ordeztzen du	Egoera bat definitzen du
Kulturen edo faktore desberdinen arteko interakzioa adierazten du, besteak beste, sexu, genero, adin, arraza, sinesmen eta/edo gizarte-maila desberdinena	Herrialde batean kokatutako identitate ugari eraturako kultura-entitatea ordeztzen du
Identitate desberdinak definitzeko bidea ematen du	Aurretik ezarritako identitateetan sinesten du
Berdintasunezko erlazioak bultzatzen ditu	Beste kultura eta tradizio batzuk onartzen badira ere, taldeen artean ez dago nahitaez berdintasunezko erlazioerik

2. Kultura-aniztasuna eta kulturartekotasuna azaltzeko bidea

<https://www.youtube.com/watch?v=BUIWrqREJ9I>

8. ERANSKINA

BEREIZKERIA

1. BEREIZKERIAREN LEKUKOTZAK

<https://www.youtube.com/watch?v=W2n2Y8dhsrs>

<https://www.youtube.com/watch?v=loZOW7fGop4>

<https://www.youtube.com/watch?v=SYdilupTEA0>

2. BEREIZKERIARI BURUZ ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK:

1. Ikusi al duzue inor baztertzen diskoteka edo tabernaren batean bere larruazalaren kolorearengatik? Edo zuen ikastetxean edo joan ohi zareten beste tokiren batean (kirol-erakundeak, sozialak, kulturakoak edo beste toki batzuk)?
2. Baztertuta egoten diren kolektiboetako pertsonak zein enplegu izan ohi dituzte, besteak beste, ijitoek eta immigranteek?
3. Zuen ustez, zer egin daiteke bereizkeria-egoera horiek ez gertatzeko? Zer uste duzue egin dezakezuela zuek?
4. Kulturartekotasuna bultzatzen duen heziketa jasotzen duzuela uste duzue? Argudiatu erantzunak.

9. ERANSKINA

HEDABIDEEI BURUZ BETE BEHARREKO ORRIA

→ Etorkinak dira:

-
-
-
-

→ Etorkinek egiten dute:

-
-
-
-

→ Latinoamerikarrak dira:

-
-
-
-

→ Latinoamerikarrek egiten dute:

-
-
-
-

→ Musulmanak dira:

-
-
-
-

→ Musulmanek egiten dute:

-
-
-
-

→ Ijitoak dira:

-
-
-
-

→ Ijitoek egiten dute:

-
-
-
-

→ Emakumeak dira:

-
-
-
-

→ Emakumeek egiten dute:

-
-
-
-

→ Gizonak dira:

-
-
-
-

→ Gizonek egiten dute:

-
-
-
-

Zein izan dira goian adierazitako kolektiboekin lotutako bilaketa ohikoenak: immigra-
teak, latinoamerikarrak, musulmanak, ijitoak, emakumeak eta gizonak?

1. Bilaketa:
2. Bilaketa:
3. Bilaketa:
4. Beste bilaketa batzuk:

Zuen ikuspuntutik, zein dira egiazkotasun handiena dutenak?

Zuen iritziz, bilaketa horien emaitzek zer eragiten dute kolektibo horietan?

10. ERANSKINA

IZENBURUAK

1. 1. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

2. 2. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

3. 3. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

4. 4. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

5. 5. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

6. 6. izenburua. Argudiatu zuen aukera.

11. ERANSKINA

ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA

Bideo nagusia:

https://www.youtube.com/watch?v=_u16rWzf3ns

(Zurumurrueen aurkako estrategiaren bideoa)

Bideo osagarriak:

<https://www.youtube.com/watch?v=ah5T9Pc56xk>

(Zurumurrueen aurkako estrategia, Getxo)

<https://www.youtube.com/watch?v=Zl8W6ddWfM8>

(Arrazakeriaren kontrako rap abestia)

https://www.youtube.com/watch?v=tLIO_-5pULA

(Gazteen topaketa, zurumurrueen aurkakoa)

12. ERANSKINA

ESTEREOTIPOEI BURUZKO BIDEOA

<https://www.youtube.com/watch?v=kyxjboYHvM8>

1. Zer estereotipo izaten dira halako pertsonenganako?

- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
- Estereotipoa:
-

2. Adierazitako estereotipoetatik hiru aukeratu eta saiatu aurka egiten edo desmuntatzen, ikasi dituzuen tresnekin:

1. 1. estereotipoa:

2. 2. estereotipoa:

3. 3. estereotipoa:

13. ERANSKINA

AMAIERAKO BIDEOA

<https://www.youtube.com/watch?v=fXBxOaLcMZg>

14. ERANSKINA

BALORAZIO-INKESTA

1. Zein dira unitatean hobekien ulertu dituzun edo errazagoak iruditu zaizkizun kontzeptuak?
2. Zein dira unitate didaktiko honetan konplexuenak iruditu zaizkizun kontzeptuak edo zailtasunen bat ekarri dizutenak?
3. Unitate didaktiko hau erabilgarria izan zaizula uste duzu? Zergatik? Justifikatu, mesedez, erantzuna.
4. Zenbait kolektiborentzat zurrumurruak zabaltzeak duen garrantzia baloratzen lagundu dizu unitate didaktiko honek?
5. Nabaritu al duzu aldaketarik, unitate didaktikoa lantzen hasi zinen lehen egunarekin alderatzen baduzu, dibertsitatearen, zurrumurruek, aurreiritzien eta haiek dituzten eraginaren gainean duzun pertzepzioan? Erantzuna baiezkota bada, azaldu, mesedez, zein eta jarri adibideren bat.

6. Zein izan da edo dira gehien gustatu zaizkizun dinamikak? Eta gogoeta egitera gehien bultzatu zaituztenak? Justifikatu erantzuna, mesedez.

7. Eta zein izan dira gutxien gustatu zaizkizun dinamikak eta gogoeta gutxien eragin dituzutenak? Justifikatu erantzuna, mesedez.

8. Zein izan da gehien gustatu zaizun dinamika? Justifikatu erantzuna, mesedez.

9. Zein izan da gutxien gustatu zaizun dinamika? Justifikatu erantzuna, mesedez.

10. Behin zurrumurruen aurkako estrategia ezagutzen duzula, gustatuko al litzaizuke zurrumurruen aurkako agente izatea? Justifikatu erantzuna.